

Amaierarik gabeko bidea: emakume-aztarnak *hegoaldeko mugaldean*

GIZA ESKUBIDEEN BEHAKETA MISIOAREN TXOSTENA
(Melilla, 2014ko uztailaren 4tik 11ra)



derecho de

ASILO

eskubidea

CEA(R) EUSKADI

Errefuxiatuen Laguntzarako
Batzordea Euskadin

EDUKIEN AURKIBIDEA

- Sarrera	4
- Partaideak	5
- Egindako bilerak	5
- Testuingurua	6
- Ondorioak	13
- Gomendioak	20
- Bibliografia	22

Txosten hau Errefuxiatuen Laguntzarako Euskadiko Batzardeak (CEAR-Euskadi) egin du, proiektu honen barruan: *Amaierarik gabeko bidea: emakume-aztarnak hegoaldeko mugan.*

Finantziatzaioa:



CEA(R)
EUSKADI
Errefuxiatuen Laguntzarako
Batzordea Euskadin



Cristo kalea 9B – 5. / 48007 Bilbo
Tel: 94 424 88 44 / Faxe: 94 424 59 38
www.cear-euskadi.org
ceareuskadi@cear.es

Argitalpenaren urtea eta lekua: 2014, Bilbo.

Argazkiak: Helena Maleno eta CEAR-Euskadi

Diseinua eta maketazioa: Erreka Multimedia S. Koop.

Inprimaketa: ABZ

Itzulpena: Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.

Lege-gordailua: BI-1392-2014



Dokumentu hau Creative commons
baimenaren mende dago

http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/deed.es_ES

Mila esker José Palazóni (PRODEIN), Nuria Díazi eta Teresa Vázquez (CEAR), Helena Malenori (Caminando Fronteras), Jesús Blasco de Avellanedari eta Esteban Velázquez (Tangerreko Artzapezpikutzaren Nadorreko Migrazio Ordezkaritza), beren ezagutzak gurekin parteka-tzeagatik, gure zalantzak argitzeagatik eta misio hau osatzen gidatzeagatik.

Mila esker giza eskubideen aldeko erakundeei, mugaldekoen biziaren alde egiten duten etengabeko lanagatik eta bisita honetan beren denbora eskaintzeagatik.

Mila esker erakunde publikoei eta Abokatuen Elkargoari, egin diguten harreragatik eta gure galderei erantzuteagatik.

Eta, amaitzeko, eskerrik beroenak Marieri, Charlotteri eta Priscari, beren bizitzaren *pusketatxo* bat partekatu baitzuten gurekin, mugaren alde batean eta bestean. Mila esker, halaber, haiek bezala, egunero-egunero bideari aurre egiteko eta indarkeria feminizidatik eta mugaldeko indarkeriatik bizirik irteteko borroka egiten duten milaka emakumeei. Ausardiaz eta duintasunez egiten dute borroka. *Hegoaldeko mugan* giza eskubideak errespetatzen daitezten eskatzen duten milaka ahotsekin bat egiten du lan honek. Agerian jarriko ahal du zeinen beharrezkoa den emakume errefuxiatuak babesteko neurriak hartzea! Erakunde publikoei dei egiten diegu pausoak eman ditzaten hori lortze aldera.

“Emakume beltzek historiaren egindako kritikek ez dituzte ‘absentziak’ soilik nabarmentzen; orobat haserretzen gara ikustean nola egin gaituzten ikusgai gu ikustea erabaki dutenetan”

Hazel V. Carby

“Pertsonak ihes egiten dute indarkeriatik, eta atzera eramaten dituzte indarkeriara. Errefuxiatuak dira, eta etorkinak dira, eta, maiz, estatuak, babestu beharrean, jazarri egiten dituzte. Testuingurua gero eta gogorragoa da, eta indarkeriak behin eta berriro gertatzen dira. Guri dagokigu haien berri izatea eta haien aurka egitea”.

Vivir sin Miedo. CEAR-Euskadi

Melilla *“miniaturazko Europa baten modukoa da. Eta haren hamar kilometroko burdin hesiak, kamerak, kanpaina-uniformeak, altzaruzko kableak, dorretxoak eta alanbre arantzaduna, Bruselako politiken metafora ezin hobea: obsesionatuak, blindatuak, xahutzai-leak eta zibilizatuak. Barrera adimendunek, teleobjektiboek, likido narrigarriek, fokuek eta gomazko balek oztopatu egiten dute klandestinoen zeharkaldia eta bide ematen diote Espainiako polizia berehala esku hartzeko eta alanbre-hesiaren beste aldera egozteko. Existitzen ez den inbasio batengatik aztoratuta dauden kontinente baten beldurrengatik da hori guztia”.*

Gabriele del Grande

(1. Sarrera)

CEAR-Euskadin nazioarteko babesa behar duten edota baztertuta gelditzeko arriskuan dauden iheslarien, lekualdatuen, aberrigabeen eta etorkinen giza eskubideak eta garapen osoa babesten eta sustatzen egiten dugu lan. 20 urte baino gehiago daramatzagu asilo-eskubidea defendatzen eta, bide horretan, gure borroketako bat izan da (eta izaten jarraitzen du) babes hori aitortzeko genero-arrazoiengatik jazarriak diren pertsonen.

Giza Eskubideen Behaketa Misioa Melillan izan zen, uztailaren 4tik 11ra bitartean. Misio hori *Amaierarik gabeko bidea: emakume-aztarnak hegoaldeko mugan* proiektuaren barruan sartzen da, eta Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu du. Misioaren helburua da giza eskubideen aldeko eragileen eta erakunde publikoen begien aurrean agerian jartzea zer zailtasun dituz-

ten herrialde seguru baterako bidean dauden emakume iheslariak asilo-eskubidea izateko. Zenbait topaketa eta bilera egin ditugu erakunde publikoekin, giza eskubideen aldeko erakundeekin eta emakumeekin berekin, eta, bildutako informazioari esker, zuzenean jakin ahal izan dugu zer-nolako errealitateari egiten dioten aurre milaka emakumek beren ihesean *hegoaldeko muga* arriskutsutik igarotzean.

Bisitaldi horretan, CEAR-Euskadik lagun izan zituen Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordea, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua (Deustuko Unibertsitatea) eta Ikuspegi (Immigrazioaren Euskal Behatokia), bai eta zenbait komunikabide ere. Berrito ere, eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartzeagatik eta iheslarien giza eskubideen aldeko konpromisoagatik.



2. Partaideak

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordea

- Maribel Vaquero Montero (presidentea, Euzko Abertzaleak taldea)
- Diana Carolina Urrea Herrera (EH Bildu taldea)
- Juan Carlos Ramírez-Escudero Isusi (Euzko Abertzaleak taldea)
- Andoni Iturbe (abokatua)

Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua (Deustuko Unibertsitatea)

- José Ramón Intxaurbe Vitorica

Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia (Euskal Herriko Unibertsitatea)

- Maite Fouassier Zamalloa

CEAR-Euskadi

- Patricia Bárcena García (zuzendaria)
- Leire Lasa Fernández (Gizarte Eragin eta Partaidetzarako taldea)

3. Egindako bilerak

- Erakunde publikoak.

- Eusko Jaurlaritzaren Ordezkaritza.
- Etorkinak Aldi Baterako Hartzeko Zentroa (CETI).
- Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoak.
 - Atzerritarrentzako eta Mugetarako Brigada.
 - Legez kanpoko Immigrazio eta Agiri Faltsutasunen Sareen aurkako Unitatea (UCRIF).

- Abokatuen Elkargoa.

- Giza-eskubideen aldeko erakundeak.

- Giza Eskubideen aldeko Melillako Elkarte.
- CEAR
- Tangerreko Artzapezpikutzaren Nadoreko Migrazio Ordezkaritza (Maroko).
- Bakearen aldeko mugimendua.
- PRODEIN
- Migratzaileentzako Jesuiten Zerbitzua.

(4. Testuingurua)

Asilo-eskubidea oinarrizko eskubide bat da

1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 14. artikulua haxe ezartzen du *“Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babes bilatu eta izateko eskubidea”*.

Asiloaren nazioarteko babesaren muina da Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Hitzarmena, 1951koa (aurrerantzean, Genevako Hitzarmena), eta haren New Yorkeko Protokoloa, 1967koa. Tresna horiek honela definitzen dute errefuxiatua: *“Arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edota iritzi politikoagatik jazarria izateko arrazoizko beldurra izanik, bere herrialdetik kanpo dagoen pertsona eta herrialde horren babesik jaso ezin duena edo, beldur horiek direla-eta, haren babesik jaso nahi ez duena”*.

Espainiak 1978an egin zuen bat Genevako Hitzarmenarekin.

Genero-arrazoiengatik jazarpena eta asilo-eskubidea

Asiloaren nazioarteko babesaren ikuspegitik, honela defini daiteke jazarpena: giza eskubideak urratzea, modu larrian, sistematikoan edo jarraituan. Diskriminatzea eta tratu okerragoa ematea jazarpenaren baliokide izan daitezke, eta beraz, kasu horietan ere nazioarteko babes beharrezkoa izan daiteke. Genero-arrazoiengatik jazarpena gertatzen dela esaten dugu, baldin eta giza eskubideen urraketek zerikusia badute pertsona bati bere genero-identitateagatik (emakumezkoa, gizonezkoa, transexuala...) edo joera sexualagatik ematen zaion rolaekin.

Gaur egungo Asiloaren Legean¹ jasota dagoenez, *“generoagatik edo sexu-joeragatik”* jazarria izan denari asiloa emango zaio. Aitorpen formal hori aurrerapauso handia da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko, bai eta lesbianek, gayek, transexualek, transgeneroek eta intersexualek (LGTTBI) jasaten dituzten erasoak aintzatesteke ere.

Hala eta guztiz ere, jazarpena jasateko beste arrazoi batzuen kasuan ez bezala (arraza, erlijioa, nazionalitatea, gizarte-taldea eta iritzi politikoa, alegia), Asiloaren Legeak dio jazarpena ez dutela generoak eta sexu-joerak berez eragiten, baizik eta *“jatorriko herrialdeko egoeraren”* baitan dagoela. Baldintza horrek eragozpen erantsia dakarkie pertsona horiei eta asilo-prozeduretan laguntzen duten erakundeei. Izan ere, ez da horrelakorik eskatzen Genevako Hitzarmenean.

Pertsona batek asiloa eta babes jaso ditzan, arrazoizko beldurra izan behar du eta beldur hori izateko arrazoiak frogatu behar ditu. Asilo eta Babeserako Bulegoak (OAR)² kasua aztertzen du, pertsona horrek beldurra ote duen eta beldur hori gertakari frogagarriek eragin ote duten egiaztatzeko; hau da, bere inguruan ihes egin izana justifikatzen duen arrazoirik ote dagoen ikusteko. Dena den, gertakari horiek ez dute zertan izan *“jatorriko herrialdeko egoera”*.

Hainbat eskualdetan giza eskubideen alde diharduten erakundek eta gizarte-taldeek adierazi dutenez, oso zaila da giza eskubideen urraketei buruzko informazio sinesgarria jasotzea; izan ere,

¹ 12/2009 Legea, urriaren 30ekoa, asilo-eskubidea eta ordezkoko babes arautzen dituena.

² Barne Ministerioari atxikitako Asilo eta Babeserako Bulegoak (OAR) du Espainian aurkezten diren asilo-eskaerak izapidetzeko ardura.

eskubide horiek oraindik ez dira osotasunean aintzat hartzen, estatuko eta estatuz kanpoko egiturek ezkutatu egiten dituzte, eta gertatukoa argitzeko eta errudunak epaitzeko ikerketak jazarria izateko arriskua dakar berekin.

Herrialde seguru batera iristea oztopo-lasterketa bat da, eta, lasterketa horretan, indarkeria nagusi da

Asiloaren babesa jasotzeko lehen urratsa herrialde seguru batera iristea da. Horrek berekin dakar norberaren herrialdetik joatea, militartutako mugetatik igarotzea, izapide diskriminazionalak egin behar izatea, eta basamortutik, itsasotik eta alanbre-sareetatik bizirik ateratzea. Gaur egun, hori lortzea herrialde-batasun oso bati borroka irabaztea da. Izan ere, herrialde horiek giza baliabide eta baliabide material eta militar mordoa inbertitu dute zenbait politike-tan, jendeari beren sorterritik ateratzen ez uzteko. Eta ateratzen badira, bidean geratzeko; eta iristen badira, itzularazteko.

Segurtasun-politikak eta legez kanpoko im-migrazioaren kontrako borroka direla medio, Europak bere mugak itxi ditu antolaketa militar eta polizial zabal baten bidez, eta, noski, horrek izugarri zailtzen du nazioarteko babesa behar duten pertsonak bertara heltzea, ihesa bera ere indarkeria-mota bihurtu baitu.

Espainiak, Europaren *hegoaldeko muga* den aldetik, migrazio-fluxuen '*kontrol-sistema*' bat garatu du, bere jurisdikzioa estatuko lurraldearen mugetatik harago eramaten duena; horrenbestez, nazioarteko uretan eta iragaitzazko herrialdeetan jarduten du, eta akordioak egiten ditu jatorriko herrialdeekin, haietako kostetatik abia-tzen diren pertsonak kontrola ditzaten.

Hona hemen politika horien esparruan ezarritako neurrietako batzuk: Europar Batasuneko estatu kideetako kanpo-mugetan lankidetzazko operatiboa kudeatzeko Europako Agentzia (FRONTEX); nazioarteko uretako patruilariak; hirugarren herrialdeetan, hala nola Mauritania eta Libian, ezarritako atxiloketa-zentroak; Ceutako eta Melillako mugaldekoko hesi labanadunak; berriz onartzeko akordioak; Atzerritarrak Barneratzeko Zentroak (CIE); eta deportazio-hegaldiak.



Migrazio-politikak etengabe eta geroz eta gehiago ari dira gogortzen, eta, horren ondorioz, batetik, behera egin du Espainiako kostaldera iristen diren itsasontzien kopuruak³, eta *hegoaldeko muga* migrazioa kontrolatzeko politikak ‘*arrakastatsutzat*’ har daitezke. Eta, bestetik, Europara iristeko saiakeretan hiltzen edo desagertzen diren kopuruak nabarmen egin du gora, iheslariek eta migratzaileek gero eta ibilbide luzeagoak eta arriskuak egin behar baitituzte. Fortress Europek nazioarteko egunkarietako artikuluak bildu ditu, eta, haren arabera, 1988tik 2013ra bitartean, 19.144 pertsona hil dira Europako muga iristeko saiakeran. Horietatik, 8.822 itsasoan desagertu dira.

2013an, gora egin zuen Ceutatik eta Melillatik modu irregularrean sartu zirenen kopuruak; dena den, *hegoaldeko muga* migrazio-bolumena oso txikia da, Espainiako estatua xede duen migrazio-mugimendua bere osotasunean hartuz gero. Horretaz gainera, EBN modu irregularrean sartzen diren % 4 baino ez da sartzen bide horretatik⁴. Hala eta guztiz ere, muga kontrolatzeko neurriak oso irmoak dira: radarrak, sentsoreak, kamera termikoak, bihotz-pultsuaren detektagailuak, hegazkinak, helikopteroak, itsasontziak, patruilariak⁵...

Emakume iheslariak *hegoaldeko muga*

Hegoaldeko muga zeharkatzen duten pertsona gehienak gizonak dira. Andaluziako Giza Eskubideen aldeko Elkartearen (APDHA) arabera, 2013an, % 4,11 soilik izan zen emakumea —eta % 3,02 adingabea—. Hori gorabehera, migrazio-ibilbidean, emakumeek indarkeria fisiko eta sexuala jasateko arrisku handia dute, bereziki mugaldeenetan. Behartutako haurdunaldiak eta abortu klandestinoak dira pairatutako indarkeriaren ondorioetako bat.

Marokora arteko migrazio-ibilbidea hainbat garraibidetan egiten dute. Mota bateko edo besteko garraibideak hartzen dituzte, zer baliabide dituzten eta migrazio-bideak nola aldatzen diren. Tarte asko oinez egiten dituzte; luze ibiltzen dira, eta beren bizitzak arriskuan jartzen dituzte. Tamanrasseteko basamortua (Aljeria) kamioitan edo *pick-ups* deritzen kamionetetan zeharkatzen dute. Aljeriara iristean, denboratxo bat igaro ohi dute Maghian, Oujda-ra (Maroko) joateko muga zeharkatzeko une egokiaren zain.

Women’s Link Worldwiden ikerketen arabera, 2-3 urte behar izaten dituzte jatorriko herrialdetik Marokora joateko; dena den, emakume batzuek 8 urte behar izan dituzte bide hori egiteko. Epe luzeko egonaldia egiteko leku bilakatu da Maroko; hantxe egoten dira Europako muga zeharkatzeko une egokiaren zain. Batez beste, urte eta erdi gelditu ohi dira han; dena den, emakume batzuk 7 urte gelditu izan dira. Azken urteetan, herrialdea zeharkatzen duten migrazio-fluxuak feminizatu egin dira. Emakumeak gero eta gazteagoak dira; batzuk adingabeak, haurrak izateko sasoiak. Gehienek prostituta gisa lan eginez bizirauten dute, edo, bestela, sexu-esplotaziorako salerosketa-sareetan harrapatutako emakumeak dira. Haietako askok ENBGKen iheslari-estatutua dute, baina aitorten horrek ez die egoitza- eta lanbaimenik ematen, eta, are gehiago, batzuk deportatu egin izan dituzte (nagusiki, Aljeriako mugara).

Administrazio-egoera irregularrak berekin dakarren klandestinotasunaren ondorioz, besteak beste, beldurra izaten dute, sarekada batean harrapatuko ote dituzten eta deportatuko ote dituzten, bai eta osasun-zerbitzuak baliatzeko zailtasunak ere, eta horrek guztiz ikusezin egiten ditu. Aurreko urtearen amaieran, Marokoko Gobernuak abian jarri zuen egoera irregularrean dauden etorkinentzako ohiz kanpoko erregularizazio-kanpaina bat. Dena den, emakume horietako gutxi dute kanpaina horren berri.

Melillaren mugakide den Nador probintzia (Maroko) igaro-leku bat da, zain egoteko leku bat. Nadorren lan egiten duten erakundeek dioskutenez, Seluaneko mendietan, Gurugu mendi ezagunetik urrutixeago —batez ere, gizonak bizi dira han, hesia pasatzeko zain—, 10 egonleku daude, “familia-kanpamentu”

3 “2013an, egoera irregularrean zeuden 3.237 etorkin iritsi ziren Espainiako kostaldera; 2012an, berriz, 3.804. Hortaz, % 15eko beherakada gertatu zen. 2013an, sendotu egin zen 2011n erregistratutako % 18ko gorako joeraren alderantzizkatzea. 2012an, murrizketa % 30 izan zen, eta, 2013an, beste % 15 gehiago. 2006az geroztik, Espainiako kostaldera sartzen diren egoera irregularrean dauden pertsonen kopuruak % 90,7 egin du behera; 2001etik 2013ra bitarteko daturik onenak dira horiek” Iturria: Barne Ministerioa. Madril, 2014/04/29.

4 2013an, 6.838 pertsona sartu ziren modu irregularrean Espainian, eta 40.304 Italian. Iturria: Frontex.

5 Hainbat egile. ¿Qué hacemos con las fronteras?, Akal, 2013.

deritzenak, eta, han, emakumeak bizi dira. Emakume horietako batzuek seme-alabak dituzte beren ardurapean. Kalkuluaren arabera, 543 pertsona bizi dira han: 417 gizon (% 76,7), 97 emakume (% 7,8) eta 29 haur. Haurretako 5 ez daude inoren kargura (% 5,3). Nagusiki, herrialde hauetatik etortzen dira: Mali, Kamerun, Ginea Konakry eta Nigeria, bai eta Ghana, Senegal, Kongoko Errepublika, Afrika Erdiko Errepublika, Boli Kosta, Gambia eta Ginea Bissau ere.

Itsasontzitan edo igerian sartzen dira Espainian, bereziki Almeriatik, Motriletik, Cádizetik, Ceutatik eta Melillatik.

Sexu-esplotaziorako salerosketa

Emakume askok genero-jazarpenetatik egiten dute ihes; adibidez, familia barneko indarkeriarengatik, ezkontzera behartzen dituztelako eta emakumeen sexu-organoen ebaketarengatik. Beste batzuek, berriz, gerra eta indarkeria hedatua dagoen testuinguruetatik ihes egiten dute, emakumeen gorputzak gerrarako eremu gisa erabiltzen dituztelako gune horietan. Hori da, besteak beste, Kongoko Errepublikako, Somaliako, Aljeriako, Ginea Konakryko eta Boli Kostako emakumeen kasua.

Bidaia gero eta arriskutsuagoa eta gogorragoa da, eta sexu-esplotaziorako salerosketa-sareek bidean harrapatzen dituzte emakume gehienak. Atzemaile, pasatzaile, patroï edo *connection man* deritzenak dira aurrera egiteko aukera bakarra, bakarrik bidaiatzea ezinezkoa baita.

Emakume batzuk jatorriko herrialdean harrapatzen dituzte. Batez ere, Nigeriako emakumeen kasua da hori. Iruzur egiten diete, eta lan-eskaintza faltsuak egiten. Ez dakite prostituzioan aritzera behartuko di-



tuztela, eta dakitenek ere ez dakite zer-nolako esplotazio-baldintza gogorrak jasan beharko dituzten (indarkeria, bortxa, familienganako mehatxuak...). Sareek dirua, herrialdean sartzeko bideak eta dokumentazioa ematen dizkiete. Behin helmugako herrialdera iristen direnean, ordea, ikaragarriko zorrak izaten dituzte, sareen mende egotera behartzen dituztenak eta prostituzioan arituz ordaindu behar izaten dituztenak. Horretaz gainera, budu-errituez eta tradizioko sorginkeriaz baliatzen dira emakumeak psikologikoki mende hartzeko.

Drogaren eta Delituaren Aurkako Nazio Batuen Bulegoaren arabera (UNODC ingeleseko siglak), 10.000 pertsona inguru (batez ere, emakumeak eta adingabeak) trafikoaren biktima dira urtero, eta Nigeriatik ateratzen dituzte eskualde horretako herrialdeetan (Benin, Boli Kosta eta Gabon), Europan (Italia, Espainia eta Erresuma Batua) eta Golkoko herrialdeetan (Arabia Saudi) esplotatzeko.

Pertsonak sexu-esplotazioarako salerosketa da merkatuaren adierazpiderik larriena sistema kapitalista eta patriarkal honetan; emakume askok ez dute aukerarik migrazio-bidaia duin bati ekiteko, eta horren ondorioz, egoera lazarriak jasan behar izaten dituzte, infernu bat bizi behar izaten dute.

NBEren arabera, Espainiako estatua da salerosketa-sareen helmuga edo pasabide diren herrialde nagusietako bat. Zaintzen industria eta sexu-industria hazten ari da helmugako herrialdeetan, batez ere Europan eta, bereziki, Espainiako estatuan, eta sare horiek horretaz elikatzen dira.

Pertsonen Salerosketaren aurkako Espainiako Sarearen arabera, estatuan 40.000 eta 50.000 emakume artean esplotatzen dituzte sexu-helburuetarako. Pertsonen salerosketa bihurtu da genero-arrazoiengatik egiten diren asilo-eskaeretan erabiltzen den argudio nagusia⁶.

Inor ezin da itzularazi bere bizia edo osotasuna arriskuan den inongo herrialdera: EZ ITZULARAZTEKO printzipioa

Nazioarteko Zuzenbideak debekatu egiten die Estatuari pertsona bat herrialde batera kanporatzea edo itzularaztea, baldin eta herrialde horretan pertsona horren bizitza edo askatasuna mehatxupean badaude, edo torturak, tratu krudelak edo umiliagarriak pairatzeko edo giza eskubideak larri urratzeko arriskua badu.

Debeku hori jasota dago Genevako Hitzarmenare 33.1⁷ artikuluan, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenaren (CEDH) 3. artikulua⁸ eta Torturaren eta bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Gizagabe eta Umiliagarrien aurkako Hitzarmenaren 3.1 artikuluan⁹.

Ez itzularaztearen funtsezko printzipio horretan oinarritzen da, hain zuzen, asilo-eskubidea. Printzipio hori ez betetzeak nazioarteko babesa jasotzeko inolako bermerik gabe uzten ditu iheslariak; izan ere, berehala itzularazi edo kanporatuz gero, ez dute aukerarik babesa eskatzeko. Hori dela eta, ENBGK¹⁰ sdelakoak behin eta berriro esan duenez, nahitaez bete beharreko printzipioa da estatuaren lurraldean, nazioarteko uretan, iragaitzazko herrialdeetan eta aipatutako hitzarmenak izenpetu dituzten herrialdeen jurisdikzioa indarrean den leku guztietan.

Hortaz, mugak kontrolatzeko neurriak aplikatzea, edozein tokitan aplikatzen direla ere, estatuaren eskumenak baliatzea da, eta horrek ez du salbuesten estatua nazioarteko hitzarmenak betetzetik; aitzitik, horiek bermatzera behartzen du. Espainiako Gobernuaren betebeharra da ez itzularazteko printzipioa betetzea bere jurisdikzioa darabilen edozein leku eta unetan.

Halaber, iheslariek eta migratzaileek, nazioarteko babesa eskatu edo ez, eskubide eta berme jakin batzuk dituzte, eta eskubide eta berme horiek errespetatu egin behar dira; zehazki, abokatu baten eta interprete baten laguntza izateko eskubidea, informazioa eskuratzeko eskubidea, itzultzearen aurkako baliabide eraginkorrak erabiltzeko eskubidea eta Estatuaren betebeharra, iheslariek edo migratzaileek jatorriko herrialdean zer tratu jasoko duten ikertzeko.

6 CEAR-Euskadik egin duen ikerketatik ondorioztatutako datuak dira; ikerketa horretan, CEAR erakundeko zerbitzu juridikoei 2009tik eta 2012ra artean izapidetu zituzten genero-arrazoiengatik asilo-eskaerak aztertu dira. Datu horiek, gero, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioak, Asilo eta Babeserako Bulegoak (OAR) eta asiloaren arloan lan egiten duten zenbait erakundek (Women's Link Worldwided, Hungariako Helsinki batzordeak eta European Council for Refugees and Exiles —ECRE— delakoak) emandako datuekin kontrastatu dira.

7 33.1 Artikulua (Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Hitzarmena): Ezein estatu kontratatzailek ezingo du inola ere, kanporatzeagatik edo itzularazteagatik, errefuxiatu bat jarri lurralde batzuetako mugetan, baldin eta lurralde horietan haren bizia edo askatasuna arriskuan badago, arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzi politikoengatik.

8 3. artikulua (Giza Eskubideen Europako Hitzarmena). Torturaren debekua: Ezingo zaio inori torturarik egin, ez eta zigor edo tratu gizagaberik edo umiliagarririk ezarri ere. Doktrinak hau onartzen du: agindu horretatik "ez da zuzenean ondorioztatzen refolement eragozpenik. Hala ere, debekatuta dago, Giza Eskubideen Europar Auzitegiak behin eta berriro ildo horretan emandako jurisprudentziaren arabera, pertsona bat estatu batera estraditaztea, kanporatzea edo erbesteratzea, hartan tortura edo tratu gizagabeak edo umiliagarriak jasateko arriskua izanez gero Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 3. artikulua legezko ondorioen ikuspuntutik" (Fischer-Lescano, A. eta Löhr, T. 2007).

9 3.1. artikulua. (CAT): Ezein estatu kidek ezingo du pertsona bat kanporatu, itzularazi edo estraditatu beste estatu batera, baldin eta ondo oinarritutako arrazoiak badaude pentsatzeko tortura pairatzeko arriskuan egon daitekeela.

10 Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa.

Hirsi Jamaa kasua eta beste kasu batzuk Italiaren aurka¹¹

2012ko otsailaren 23an, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak lurraldez kanpokotzat jo zuen Giza Eskubideen Europako Hitzarmena; zehazki, hitzarmen hori estatu batek kontrolatzen dituen eremu guztietan —bai eta itsas zabaleko ontzietan ere— aplikatu eta nahitaez bete behar dela ezarri zuen. Erabaki horrek berriro ere ekartzen dizkigu gogora ez itzularazteko printzipioa, kanporaketa masiboak, eta iheslariek eta migratzaileek dituzten prozedura-bermeak —prozedura-berme horiek ezinbestekoak dira beren oinarritzko giza eskubideak errespetatzeko—.

Torturaren kontrako Nazio Batuen Batzordea

2011ko azaroan, Torturaren kontrako Nazio Batuen Batzordeak Espainia gaitzetsi zuen, tratu gizaga-beak, krudelak eta umiliagarriak emateagatik Laucing Sonko senegaldarrari. Laucing Sonko itota hil zen, 2007ko irailaren 25etik 26ra bitarteko gauean, beste hiru pertsonarekin batera Ceutako kostaldera igerian iristen saiatzen ari zenean. Guardia Zibilaren patruilari batek atzeman zituen, eta Marokoko itsasertzetik metro batzuetara gerturatu. Han, igeri-jakak zulatu zizkieten, berriro ibilbide bera egiten saia ez zitezen, eta uretara bota zituzten. Laucing Sonkok ez zekien igeri egiten, eta laguntza eskatu zuen. Agenteetako batek uretara jauzi egin eta hondartzara eraman zuen, baina jada berandu zen. Suspertzen saiatu arren, hil egin zen.

Lau pertsonak eskualde gatazkatsuetatik zetozen, eta, hortaz, nazioarteko babesa eska zezaketen. Guardia Zibilak de facto itzulketa bat egin zuen, berehala, inongo administrazio-prozedurarik gabe. CEAR-Sur-ek zigor-prozedura bat hasi zuen, baina prozedura hori artxibatu egin zen. Laucing Sonkoren amak, berriz, komunikatu bat aurkeztu zion Torturaren kontrako Nazio Batuen Batzordeari, eta komunikatu hori 2011ko azaroaren 25ean ebatzi zen. Batzordeak aditzera eman zuenez, tratu txarrak emateko debekua *“erabatekoa da, eta tratu txarren prebentzioak eraginkorra eta aginduzkoa izan behar du”* agintariei, de iure edo de facto, zuzenean edo zeharka, osorik edo partzialki, kontrol eraginkorra duten edozein lurraldetan. *“Guardia zibilek beren kontrolpean zituzten ontziko pertsonak, eta, horrenbestez, haien osotasunaren erantzule ziren”*. Eta, amaitzeko, hauxe zioen: *“pairarazitako sufrimendu fisikoa eta mentala, gizabanakoak migratzaile gisa zuen zaurgarritasun-egoera dela-eta larriagotua [...] tratu edo zigor krudel, gizagabe eta umiliagarriaren atalasea iristen da”*.

Legez kanpoko itzulketak eta mugaldeko indarkeria

Legez kanpoko itzulketak, Espainiako Gobernuak eufemismo bat baliatuz “beroan egindako itzulketak” deritzenak, hau esan nahi dute: egitezko bidez, Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoek Espainiaren mendeko lurraldeetan atzemandako atzerritarrak Marokoko agintariei ematea, ezarritako lege-prozedurak eta aitortutako nazioarteko bermeak bete gabe¹². Itzulketa horiek urratu egiten dituzte Asiloaren Legea¹³, Atzerritarrei buruzko Legea¹⁴ eta giza eskubideak babeste aldera izenpetutako nazioarteko hitzarmenak, eta ez diete iheslariei uzten nazioarteko babes-prozedura baliatzen.

Herriaren Defendatzaileak, Giza Eskubideen Europako komisarioak, giza eskubideen aldeko nazioarteko hainbat erakundek, hala nola Amnesty Internationalek eta Human Rights Watchek, eta Estatuak beste hainbat erakundek, mugimenduk eta elkartek mugaldeko jarduera ilegal eta gizagabe horiek salatu eta gelditzeko eskatu dugu.

Urte askotan, ‘itzulketa’ horien ostean, pertsonak basamortuan abandonatzen zituzten, Aljeriako mugan. Marokoko agintariei mehatxatu egiten zituzten, eta tratu txarrak ematen zizkieten, eta, batzuetan, airera

11 Giza Eskubideen Europako Auzitegia (Areto Handia), 2012ko otsailaren 23a. Case of Hirsi Jamaa and Others v. Italy. 27765/09 errekurtsua. Italiatik 200 libiar kanporatzea. Kanporaketa masiboak.

12 “Lurralde nazionalera postu ez-baimenduetatik saiatzen sartu eta mugan edo mugaren inguruan atzematen diren atzerritarrak itzularazi egin daitezke, Atzerritarrei buruzko Legearen 58.3.b) artikulua arabera”. Iturria: Txostena: “Expulsiones en caliente: Cuando el Estado actúa al margen de la Ley” I+D+i Iusmigrante.

13 12/2009 Legea, urriaren 30ekoa, asilo-eskubidea eta ordezkoko babesa arautzen dituen.

14 Abenduaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, Atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei buruzkoa, eta atzerritar horiek gizartertzeari buruzkoa; apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretua, lege horren erregelamendua onartzen duena.

tiro egiten zuten, inork ez zezan atzera egin. Gaur egun ere, pertsonak mugatik aldentzen dituzte —bai muga zeharkatzen atzemandakoak, bai legez kanpo itzularazitakoak—, baina orain Rabaten abandona-tzen dituzte. Oraindik ere, tratu txarrak eta erasoak etengabeak dira, mugaren alde batean zein bestean. Tokiko erakundeen arabera, indarkeriak gora egin du azken hilabeteetan.

2014ko otsailaren 6an, 15 pertsona itota hil ziren Tarajal hondartzan (Ceuta) Ceutako kostaldera igerian iristen saiatzen ari zirenean, Guardia Zibilaren jokabidearen ondorioz (gomazko pilotak jaurti zituzten). Tragedia horrek iritzi publikoaren jopuntuan jarri zuen mugaldeko jardunbide sistematiko hori. Otsailaren 13an, Parlamentuko batzordean, Barne ministroak azkenean onartu zuen gomazko pilotak “euste-neurri” gisa erabiltzeaz gain hondartzara iristea lortu zuten 23 pertsonak berehala eraman zituztela atzera Marokoko agintariengana *“mugen kontrolari buruzko kontzeptu operatibo bat aplikatzeko, zeinaren arabera muga-lerroak atzera egiten baitu Guardia Zibileko agenteen lerroa”*¹⁵.



Duela gutxi, Melillako Lehen Auzialdiko eta Instrukziozko 2 zenbakiko Epaitegiak eginbideak ireki ditu, ekainaren 18an hesia pasatzeko saiakeran zer gertatu zen ikertze aldera. Kereila Andalucía Acogek, SOS Arrazakeriaren Federazioak eta PRODEINEK jarri zuten, eta bideo batean oinarritzen da. Bideoan, Marokoko indar laguntzaileak ikusten dira, Espainiako lurraldearen barruan, etorkin bat jipoi-tzen, Guardia Zibilaren aurrean, eta Guardiak Zibilak ez du esku hartzen indarkeria geldiarazteko. Epaitegiaren arabera, hesia Espainiako lurraldean dago, eta, horrenbestez, Espainiako estatua da hesi horretan gertatzen diren ekintzen erantzule.

“Beroan egindako kanporaketak: estatuak legez kanpo jokatzeko duenean” deritzon txostenak hauxe dio amaieran: *“kanporaketak beroan egitea erabakitzeak, kanporaketak beroan egiteak eta aktiboki eta pasiboki horretan parte hartzeak zigor- eta diziplina-erantzukizuna dakar berekin”*.

Salaketa horiek guztiak eta dokumentu bidezko eta ikus-entzunezko froga ugariak gorabehera, Espainiako agintariek oraindik ere esaten dute legea betetzen dutela eta giza eskubideak errespetatzen dituztela mugaldean. Haien hitzetan, egoera irregularrean dauden migratzaileak berriz onartzeari buruzko Espainiaren eta Marokoren arteko 1992ko Hitzarmenaren aplikazioak justifikatzen ditu itzulketa horiek. Dena den, hitzarmen hori ez dago Espainiako eta Europako giza eskubideen arloko araudiaren gainetik, hots, Espainiako estatua bermatzera behartuta dagoen araudiaren gainetik.

Espainiako eta Maroko gobernuak interes politiko eta ekonomiko jakin batzuk defendatzeko egiten dituzten negoziazioetan, truke-moneta gisa erabiltzen dituzte iheslariak eta migratzaileak. *Hegoaldeko mugako* azken gertaerak horren adibide garbia dira.

Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakumeei dagokienez, itzulketak oso arriskutsuak dira beren bizirako eta segurtasunerako. Hau guztia paira dezakete: sarearen errepresaliak, baita emakumearen familiako beste kideenganakoak ere —batik bat, sarearekin egindako ‘zorra’ ez ordaintzeagatik—; berrito ere salerosketaren sarean erortzeko aukera handia; eta os-trazismo larria, diskriminazio handia edo zigorra familiaren aldetik edo tokiko komunitatearen aldetik edo, batzuetan, agintarien beren aldetik, prostituzioan aritu izanagatik.

¹⁵ “Barne Ministerioak aipatzen duen mugaldeko kontzeptu operatiboa fikzio bat da, eta ez du lege-estaldurarik”. Iturria: Txostena: “Expulsiones en caliente: Cuando el Estado actúa al margen de la Ley” I+D+i lusmigrante.

(5. Ondorioak)

Asiloaren nazioarteko babesa eskuratzeko eskubidearen urraketa

Erakunde publikoekin eta tokiko elkarteekin egindako bileretan eta topaketetan, aho batez onartu da Europara Melillatik sartzen saiatzen diren pertsona gehienek gatazka larrietatik, indarkeria-egoeretatik eta krisi humanitario larrietatik ihes datozela. Hortaz, pertsona horiek balizko errefuxiatuak dirateke.

Migrazioa kontrolatzeko politiken ondorio nagusietako bat da gero eta zailagoa dela herrialde seguru batera iristea nazioarteko babesa eskatzeko.

2013an, 4.502 pertsonak soilik eskatu zuten asiloa Espainiako estatuan; hau da, EBen izapidetutako eskabideen % 1,03. Zifra hori oso urrun dago Europako joeratik, eta iragarria da, baldin eta kontuan hartzen badugu munduan 45,2 milioi pertsona daudela behartutako lekualdatze-egoeran, ENBGK-en arabera.

Urte horretan bertan, 4.354 pertsona sartu ziren Espainiako lurraldera Ceutatik eta Melillatik; horietako asko Malikoak, Siriakoak eta gatazka-egoeran dauden beste herrialde batzuetakoak ziren. Dena den, 41 pertsonak soilik izapidetu zuten eskabidea Melillan. 2014ko lehenengo seihilekoan, 9 pertsonak soilik egin dute hori. Pertsona horiek Kongoko Errepublikakoak, Boli Kostakoak, Aljeriakoak eta Siriakoak dira (2 emakume, 5 gizon eta inoren kargura ez dauden 2 adingabe).

Giza eskubideen aldeko erakundeek adierazi dutenez, mugaldeen ez dute uzten asilo-eskabideak izapidetzen eta ez dute asilo-eskabideari buruzko informaziorik ematen.

Hortaz, Espainiako estatuan asilo-eskabideen kopurua murrizte aldera ezarritako estrategien bi kasu paradigmatico dira bi hiri horiek. Arrazoi nagusiak bi dira:

1. **Itzulketa ilegalek eta sistematikoek ez diete uzten balizko iheslariei asilo-prozeduraz baliatzen.** Mugan ez dago inongo prozedurarik, pertsonak nazioarteko babesa eskatu ahal dezaten. Urte honetako abuztuko komunikatu batean, ENBGK-k adierazi du estatuak erraztu egin behar duela lurraldera sartzea eta asilo-prozedurak baliatzea Ceutan eta Melillan.

2. **Melillan asiloa eskatzen dutenen joan-etorri aserako eskubidearen urraketa.** Egindako bileretan eta topaketetan, aho batez onartu da Melillan izapidetzen diren asilo-eskabideen kopuru urria nazioarteko babesa eskatu eta eskabidea izapidetzeko onartu zaien pertsonak Penintsulara sartzeko duten oztopoaren ondorio zuzena dela.

Debeku hori 2009an hasi ziren aplikatzen, gaur egungo Asiloaren Legea indarrean sartu zenean, eta Konstituzioaren 19. artikuluan aitortzen den joan-etorri aserako eskubidearen urraketa nabarmena da.

Ceutako Epaitegiak¹⁶, Andaluziako Justizia Auzitegi Gorena¹⁷, Herriaren Defendatzailea¹⁸, asilo-eskubidearen aldeko erakunde espezializatuak, hala nola CEAR, eta zenbait nazioarteko erakunde, hala nola ENBGK¹⁹ eta Arrazismoari, Xenofobiari, Diskriminazioari eta Intolerantziari buruzko Nazio Batuetako Errelatore Berezia²⁰ administrazio-neurri horren aurka agertu dira.

Dena den, Gobernuak bere horretan eusten dio debeku horri, eta Schengen esparruko hiri autonomoen salbuespenezko izaera aipatzen du hori justifikatzeko²¹.

Joan-etorri askerako eskubidearen murrizketa dela-eta, asilo-eskubidea desagertzeaz dago Melillan. Iheslariak uko egiten diote nazioarteko babes eskatzeari. Zain egoten dira Penintsulara noiz eramango dituzten, eta, Penintsulara eramaten dituztenean, kanporatzeko eta itzularazteko agindu batekin eramaten dituzte, eta horrek izugarri zailtzen du gero asilo-prozedurari ekitea. Atzeritarrak Barneratzeko Zentro (CIE) batean sartzen dituzten pertsonak are zailtasun handiagoak dituzte asilo-prozedurari ekiteko; kasu horretan, prozedura mugan aplikatzen da, eta berme gutxiago ditu prozedura lurraldean egiten denean baino. Beste pertsona batzuek berriro arriskatzten dute bizia, eta muga modu klandestinoan zeharkatzen saiatzen dira.

Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakumeen babesgabetasuna

Euskal Ordezkaritzak egiaztatu du, jasotako informazioari esker, Melillara hegoaldeko mugatik iristen diren emakumeetako asko sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimak direla. Orobat egiaztatu du ez dagoela detekzio- eta babes-mekanismorik.

Emakume horien bizia babesteko, ezinbestekoa da uko egin ezinezko bi kontu betetzea: detekzioa —salerosketaren biktima eta iheslari gisa identifikatuak izateko aukera— eta ez itzularaztea.

Nolanahi ere, Melillan ez dago detekzio ofizialik, eta Espainiako Gobernuak ez du asilorako kausatzat hartzen salerosketa²². OARen²³ arabera, jazarpen-mota hori ez da sartzen 1951ko Genevako Hitzarmenaren esparruan. Atzeritarrei buruzko Legearen²⁴, 59 bis artikulua ezartzen du pertsona horiek babes-teko mekanismoa; horren arabera, biktimei babes eskainiko zaie baldin eta haiek esplotatzen dituzten sareak salatzen badituzte eta agintariei sare horiek desegiten laguntzen badiete.

Salerosketa, hortaz, delitua jazartzeko bide gisa hartzen da, eta ez emakumeen giza eskubideen urraketa larri gisa. Larriki ari dira emakumeak birbitimizatzen. Erantzuleak, berriz, zigorgabe gelditzen dira, eta zigor arinak betetzen dituzte, egindako delituaren larritasuna kontuan hartuta.

16 207/2013 Epaia, urriaren 16koa, Ceutako 1 zenbakiko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiarena.

17 Andaluziako Justizia Auzitegi Gorenak posizio juridiko hori bermatu du, baliogabetzat jo baititu izapidetzeko onartutako asilo-eskatzailak Ceutan atxikitzeo administrazio-neurriak. Horren adierazgarri gisa jar daitezke, besteak beste, Andaluziako Justizia Auzitegi Gorenaren Epaia, 398/2010 Erroilua, 2010eko urriaren 25ekoa; Andaluziako Justizia Auzitegi Gorenaren Epaia, 437/2010 Erroilua, 2010eko urriaren 28koa; Andaluziako Justizia Auzitegi Gorenaren Epaia, 525/2010 Erroilua, 2011ko otsailaren 10ekoa eta Andaluziako Justizia Auzitegi Gorenaren Epaia, 527/2010 Erroilua, 2011ko urtarrilaren 13koa.

18 Herriaren Defendatzaileak azpimarratu zuenez, ebazpen judizialean (Andaluziako Justizia Auzitegi Gorena) adierazten zen, hain zuzen ere, bestelako interpretazio bat Konstituzioaren printzipioen eta oinarriko eskubideen interpretazio murriztailei buruzko jurisprudentziaren aurkakoa izango litzatekeela, Asiloaren Legearen 10.2d) eta 36.1 artikuluen babespean. Era berean, adierazi zuenez, "ezin da interpretazio murriztailei onartu Konstituzio Auzitegiak emandako doktrinaren arabera" eta Konstituzio Auzitegiaren 94/93 epaiak lehen ere onetsi zuen "legezkotasun-egoeran" dauden atzeritarren joan-etorri askerako eskubidea.

19 2010eko maiatzean, ENBGK-k bere posizioa finkatu zuen, gai horri dagokionez: "Argi dago, horrenbestez, joan-etorri askerako eskubidearen asilo-eskatzailen mugaketarik eta bazterketarik ez dagoenez (are gehiago kontuan izanda errefuxiatu-kondizioaren onespeneraren deklarazio-izaera), eskubide hori erabat aplikagarria zaiela, eta eskubidearen edozein mugaketa lege-arau baten aplikaziotik eratorri beharko da, eskatzailen kokapen geografikoa edozein izanda ere, gainera".

20 2013ko ekainaren 6ko bere txostenean jasota dagoenez, Mutuma Ruteere-k adierazi zuen Ceutan eta Melillan asiloa eskatzen dutenek arretea berezia merezi dutela, eta kexu agertu zen asilo-araudiaren aplikazioak Penintsulan eta hiri autonomoetan dituen aldeak direla eta. Kezkatuta ikusi zuen Espainiaren asilo-sistemak erakusten duen hauskortasuna bi hirietan.

21 Espainia Schengen Akordioa Aplikatzeko Hitzarmenari atxikitzeo akordioaren Berrespen Tresnaren Azken Aktako III. puntua.

22 D2009tik 2012ra bitartean, CEAR erakundeko zerbitzu juridikoek sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima izan diren emakumeen 40 asilo-eskabide izapidetu zituzten. Horietatik 26 Nigeriakoak ziren, eta besteak Somaliakoak, Kamerunekoak, Kongoko Errepublikakoak, Malikoak eta Sudanekoak. Haietako bakar batek ere ez du nazioarteko babes jaso. Orain arte, Espainian, salerosketaren biktima izan diren bi pertsonari soilik eman zaie asilo-estatutua.

23 Barne Ministerioari atxikitako Asilo eta Babeserako Bulegoak du Espainian aurkezten diren asilo-eskaerak izapidetzeko ardura.

24 Abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoa, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzen duena, Atzeritarrek Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei buruzkoa, eta atzeritar horiek gizartertzeari buruzkoa.



Seluán-eko mendikateak (Morocco) Europara sartzeko itxaroten dauden 100 emakume baino gehiago eskutatzen ditu, horietatik batzuk adintxikikoak izanik

Borndate politiko eskasa dago errealitate horri generoaren eta giza eskubideen ikuspegitik heltzeko. Horretaz gainera, Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoek ez dute batere prestakuntzarik arlo horretan, eta hori zinez larria da.

Emakume horien errealitatea da sareak oso estu kontrolatzen dituela eta, hori dela eta, beldurtuta egoten direla beren ekintzek berengan eta jatorriko herrialdeko senideengan izan ditzaketen ondorioengatik. Horretaz gainera, ez dute beren egoeratik irteteko bidetzat hartzen salaketa, eta ez dute benetako babes-mekanismorik.

Marokoko emakume zamaketarien esplotazioa

Melillako muga egunero-egunero gertatzen den errealitate bat da Marokoko emakume zamaketariek bizi duten esplotazioa. Ofizialki “ezohiko merkataritza” esaten zaion hori, beraz, lan-esplotazioko baldintzetan egiten da. “Barrio Chino” muga-pasabidea ‘negozio’ horretarako soilik erabiltzen da.

6.000tik 8.000ra emakume zamaketari Nadorretik Melillara joaten dira egunero-egunero, salgaiak hartu eta Marokora garraiatzeko. Salgaiak fardel astunetan bilduta bizkarreratzen dituzte (fardelek 100 kilo izan ditzakete), eta ibilbidea hiruzpalau aldiz egiten dute egunean, eta 4 eurotik 6 eurora bitarte jasotzen dute ibilbide bakoitzeko. Emakume gehienak bazterkeria-egoeran daude —alargunak, desgaituak, gaixoak, gaitzetsiak edo dibortziatuak dira—, eta ez dute baliabiderik. Hori dela eta, haien helburua da egunean ahalik eta ibilbide gehien egitea.

Zama-lan horiek egiteko baldintzak zinez ankerrak dira.

Tokiko erakundeek egiaztatu dutenez, lan-esplotazioaz gain, emakumeek hau guztia ere pairatu behar dute: poliziaren indarkeria, eskupeko beltzak ordaindu beharra, sexu-jazarpena eta salgaiak modu



bidegabean konfiskatzea, bai eta hotza, euria edo bero kiskalgarria ere²⁵. Muga igartzeko baldintza horiek direla-eta, egunero gertatzen dira istripuak. Halaber, maiz gertatzen dira jende-oldeak, eta, horren ondorioz, jendea zanpatuta hil egin izan da.

Salgaien 'garraio' hori bi hiri autonomoen ekonomiaren herena da ia²⁶.

Etorkinak aldi baterako hartzeko zentroaren (CETI) gainokupazioa

Etorkinak Aldi Baterako Hartzeko Zentroak establezimendu publikoak dira, eta Enplegu eta Gizarte Segurantzarako Ministerioaren Etorkinak Gizarteratzeko Zuzendaritzaorde Nagusiak kudeatzen ditu. Lehen harrera emateko gune izateko sortu dira, eta helburutzat dute oinarrizko gizarterbitzuak eta -prestazioak ematea Ceutako eta Melillako hiri autonomoetara iristen diren etorkinei eta asilo-eskatzailerei²⁷.

Melillako CETI 1999an jarri zuten abian, eta 480 pertsonentzako lekua du. 2014ko uztailaren 8an, 1.534 pertsona ostatatzen zituen guztira (971 gizon, 193 emakume eta 370 adingabe — 183 neska eta 187 mutil—). Aurtengo maiatzean, pertsona-kopurua boskoiztu egin zen: ia 2.600 pertsona zeuden zentro horretan. Harrezkerotik han izan ginenera bitartean, 900 pertsona eraman dituzte Penintsulara.

²⁵ Tetuango adierazpena, Ceutako eta Melillako mugan zama-lanetan aritzen diren emakumeei buruzkoa. 2012ko apirila.

²⁶ Melillak badu berezitasun bat: Europako Aduana Batasunetik kanpo dago. Horri esker, zerga bat ezartzen diete inportatutako produktuei. Edukiera edo IPSI (Ekoizpenaren, Zerbitzuen eta Inportazioaren gaineko Zerga) deritzen zergak bide ematen du mugaren beste aldetik zuzenean inportatzen denean baino etekin handiagoa lortzeko; izan ere, mugaren bestaldean, muga-zergak handiagoak dira. Gaur egun hiri autonomo denak 1986an hartu zuen erabaki hori, eta, gero, Ceuta eta biak bakarrik gelditu ziren; izan ere, Kanariar Uharteak Aduana Batasunean sartu ziren 1991n. Zenbat diruz ari garen jabetzeko, kontuan hartzekoa da Melillaren urteko aurrekontua 250 milioi eurokoa dela gutxi gorabehera eta horietatik 40 milioi IPSI salgaiak inportatzeko zergaren bidez sartzen direla. Iturria: El Mundo, 2013ko apirilaren 7a.

²⁷ Horixe ezartzen du apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuak, 4/2000 Lege Organikoaren erregelamendua onartzen duenak (4/2000 Lege Organikoa, Atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei buruzkoa, eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa, 2/2009 Lege Organikoaren bidez aldatua).

Gaur egun, siriarra da nazionalitate nagusia. Gehienak familia-taldetan iristen dira, eta baimendutako muga-postuetatik sartzen dira, pasaporte faltsuekin.

Bigarren taldea Saharaz hegoaldekoena da. Esan dugunez, emakumeak itsasontzi bidez iristen dira hirira, eta gizonak, batez ere Marokora iristean jada baliabiderik ez dutenak, hesia pasatuz.

Batez beste, 280 egun igarotzen dituzte zentroan.



CETI-ra Ordezkaritza sartzen

Instalazioak

480 tokiak modulutan banatuta daude; modulu bakoitzak 6 ohe, 6 armairu, idazmahai bat eta mahai bat ditu. Gaur egun, batik bat, beren ardurapean adingabeak dituzten emakumeak daude modulu horietan, bai eta familia-taldeak ere, batik bat siriarrak.

Gainokupazioaren arazoak konpontze aldera, kanpadendak jarri dituzte. Kanpadenda horietan, Saharaz hegoaldeko gizonak bizi dira, batik bat. Ohatzeak elkarren kontra pilatuta daude, eta, hortaz, ez dago pribatutasun-eremurik, ez eta norberaren objektuak gordetzeko lekurik ere; hori dela eta, lapurretak gertatzen dira, eta hainbat liskar sortzen.

Eraikin nagusia prestakuntza-lantegiak egiteko da, eta eraikin hori ere bertakoak ostatatzeko atondu dute.

Ez dago aisialdirako lekurik zentroaren barruan eta inguruan. Berez, zentroaren barrualdea eta inguruneak zakarrez beteta daude, eta hantxe egoten dira familietako asko kozinatzen eta haurrak



jolasean. Giza Eskubideen Behaketa Batzordea ere Melillan izan zen uztailean²⁸, eta, ikusi zutenez, begi-bistakoa da Melillako Udalak ez duela inolako garbiketa-zerbitzurik edo mantentze-lanetarako zerbitzurik zonalde horretarako. Ikuskizun hori CETIren eta hesiaren artean dagoen golf-zelai zainduaren oso bestelakoa da.

Gainokupazioaren arazoak nabarmenak dira: bizigarritasun-baldintzarik eza, erasoak eta bizikidetza-gatazkak.

Emakumeen egoera

Intimitaterik eza, prekarietatea eta instalazioen saturazioa bereziki larria da emakumeen kasuan. Emakumeek erasoak eta sexu-indarkeria pairatzen dituzte instalazioetan.

Siriar emakumeek senideen tratu txarrak pairatzen dituzte. Zentroko langileek lanean dihardute salaketak jartzeko eta erasotzaileei zigorrak ezartzeko, baina egoera konplexua da, eta, gehienetan, ez dute ekiteko tresnarik. Gizona kanporatzen badute, emakumeak familia-taldearen errepre-saliak pairatzen ditu, eta, hori dela eta, emakumeak uko egiten dio salatzeari.

Saharaz hegoaldeko emakumeen kasuan, haietako asko, batez ere nigeriarrak, sexu-esplotazio-rako salerosketaren biktima direla pentsarazten duten zantzu garbiak daude. Sareek kontrol gogorra egiten dute haien baitan. Gehienek esaten dute “*senarrarekin*” egin dutela migrazio-ibilbidea. Beste batzuk ez daude salerosketa-sareetan sartuta, baina haiek ere beren mugimenduak kontrolatzen dituzten “*senarrak*” dituzte.

Hasiera batean, eta nazionalitatearen arabera, ez dira prostituzioan aritzen Melillan. Haietako askok ez dakite zer gertatuko zaien Penintsulara iristean. Aldez aurretik esaten diete zer esan behar

²⁸ CIEak itxeko estatuko kanpaina: Vulneración de Derechos Humanos en la Frontera Sur-Melilla. Giza Eskubideen Behaketa Batzordearen txostena, 2014ko uztailekoa.

dieten CETIko langileei, eta ez dute txintik esaten beren egoerari buruz. Melilla, oraindik ere, Espainiako estaturako pasabide bat da, eta sareek *“beren salgaiak zaintzen dituzte”*.

CETIn, osasun-arreta jasotzen dute, eta laguntza psikologikoa eskaintzen diete, baina langileek haiekin banan-banan lan egiteko zailtasun handiak daude. Hori dela eta, zantzuak atzematean, Penintsulara bideratzen dituzte, haien egoerari buruzko txosten xehe batekin. Euskal ordezkariak han izan aurretik, guztira 59 emakume eraman dituzte Penintsulara, indarkeria- edo salerosketa-zantzuak atzeman ostean. Egoera hori datu ofizialen bestelakoa da: datu ofizialen arabera, Melillan ez dago detekziorik.

Orobat gertatzen dira LGTTBI pertsonen aurkako homofobia-egoera larriak —isekak, irainak, erasoak—.

Adingabeen egoera

CETIk eskolatu egiten ditu, hirian.

Gaur egun, CETIn dauden adingabe gehienak Siriakoak dira.

Denbora batez, salerosketa-sareek adingabeak, batez ere Saharaz hegoaldekoak, erabili izan dituzte emakumeak errazago sartzeko. Horregatik, ADN probak egiten hasi ziren, seme-alabatasuna frogatzeko. Hori ikusirik, sareek estrategia aldatu dute. Gaur egun, emakumeak haurdun sartzen dira, eta *‘aitari’* itxaroten diote CETIn.

Lekualdaketak

Enplegu Ministerioaren proposamenari jarraituz Barne Ministerioak baimena ematen duenean eramaten dituzte Penintsulara. Lekualdaketak iriste-ordenaren arabera egiten dira —zaugarritasun-egoeran dauden taldeek lehentasuna dute—, administrazio-izapideak egin ostean: erreseinak eta kanporatze-agindua²⁹.

Gaur egun, ziurtatu digutenez, irteerak bizkortzen ari dira.

Kanporaketak

Bildutako informazioaren arabera, gaur egun ez dira emakumeak kanporatzen ari, baina bai gizonak (Aljeria, Hegoaldeko Mali, Nigeria, Kamerun). Espainiako estatuak hirugarren herrialdeekin izenpetutako berriz onartzeko akordioen ondorio dira ekintza horiek. Polizia Nazionala CETIn sartzen da, eta Penintsulako CIE batera eramaten dituzte pertsonak, eta, han, zain egoten dira, noiz kanporatuko dituzten.

CETIren kudeaketa

Ordezkaritzak, bai eta tokiko erakundeek ere, aintzatetsi egiten ditu CETIko zuzendaritzak egoera hori kudeatze aldera eta hobetzeko aukerak bilatze aldera egiten dituen ahaleginak.

Zuzendariak adierazi duenez, gainokupazioak berekin dakarren administrazio-lanaren ondorioz, ezin diete beste problematika batzuei heldu, batez ere emakumeen aurkako indarkeriari lotutakoei. Enplegu Ministerioako 15 langile dituzte, eta GKE-etako langileak. Aitortzen dute lana hobetu daitekeela, baina, eskura dituzten giza baliabide eta baliabide teknikoekin, kudeaketa-gaitasun mugatua dute.

²⁹ Pertsona guztiak iritertzen dira kanporatze-agindu batekin CETItik, asilo-eskatzailak izan ezik.

5. Gomendioak

Iheslariek asiloaren nazioarteko babesa eskuratzeko duten eskubidea errespetatzea

Gure ustez, premiazkoa da immigrazio- eta asilo-politika bat garatzea, legeria nazionalarekin eta giza eskubideei buruzko nazioarteko beste hitzarmen batzuekin bat datorrena, Melillako hiri autonomotik Espainiako estatura iristea lortzen duten pertsonen nazioarteko babesa bermatzeko. Alde horretatik, ezinbestekotzat jotzen dugu:

- Nazioarteko babesa jasotzeko balizko izangaiak identifikatzea, eta horretarako ezarritako prozedurak abiaraztea.
- Prozedura guztietan abokatuen laguntza bermatzea, eta Melillako Abokatuen Elkargoak horretarako dituen bitartekoak sendotzea.
- Asiloa eskatu eta eskubidea izapidetzeko onartu zaien pertsonen joan-etorri aserako duten eskubidea errespetatzea (Penintsulara sartzea).
- Ez itzularaztearen printzipioa errespetatzea.

Mekanismoak ezartzea, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakumeak babesteko

Bereziki larria eta kezkarria da Melillatik Espainiara sartzen diren emakumeek bizi duten ikusezintasun-egoera eta zaurgarritasun-egoera larria. Emakume horiek indarkeria fisikoa eta sexuala pairatzen dute migrazio-ibilbidean. Horretaz gainera, haietako asko sexu-esplotaziorako sareen kontrolpean daude. Haien babesa bermatze aldera, ezinbestekoa da:

- Salerosketa nazioarteko babesa merezi duen jazarpen-arrazoitzat hartzea. Hainbat arrazoi direla medio:
 - Salerosketa, bere muturreko larritasunagatik eta esplotazio-baldintzengatik, jazarpen-mota bat da.
 - Jazarpen-agenteek gizarte-taldetzat hartzen dituzte emakumeak, eta horrek bultzatzen ditu emakumeak jazartzera.
 - Estatuko agenteek eta estatukoak ez direnek jazartzen dituzte emakumeak. Estatua, bere egituren bidez, zuzenean edo zeharka dago inplikaturaren sareen ekintzetan, edo ez da gai errealitate horri aurre egiteko eta biktimak babesteko.
 - Jatorriko herrialdera itzularaziz gero, beren bizia eta osotasuna arrisku larrian egon daitezke.
- Prozeduran inplikaturako agente guztiei generoari eta giza eskubideei buruzko berriazko presuntakuntza ematea, balizko biktimak atzematen direla bermatuko duena eta bide emango duena biktimak identifikatzeko eta biktimek asilo-prozedura eskuratzeko.
- Indarkeria pairatzen duten emakume guztiak edo salerosketaren biktima izatearen zantzuak dituzten emakume guztiak Penintsulako zentro espezializatuera eramatea.

- Salerosketaren aurkako Osoko Lege bat onartzea, genero-ikuspegitik garatua eta helburutzat giza eskubideak defendatzea eta errespetatzea izango duena. Lege horretan, babesa jasotzeko, biktimak ez dira behartuta egongo agintariekin lankidetzan jardutera esplotatzen dituzten sareak desegiteko.

Emakume zamaketarien giza eskubideak errespetatzea

Badakigu “ezohiko merkataritza” deritzona oso garrantzitsua dela hiriko ekonomiarako. Hori horrela, irtenbideak bilatzearen alde gaude, salgaien ekarri-eramanak egiteko moduak ez diezaien kalterik egin emakumeei eta emakumeen eskubideak errespetatzen direla berma dezan.

Pertsonak lehenestea eta zonaldean enplegu duina bultzatzea xede duen garapen iraunkorraren alde egitea ezinbestekoa da. Horri esker, milaka emakumek ez dute mugetan salgaiak garraiatzen lan egin behar harko, zinez lan krudela eta gizagabea baita.

Etorkinak aldi baterako hartzeko zentroaren (CETI) bizigarritasun- eta harrera-baldintzak hobetzea, eta penintsularako lekualdatzeak bizkortzea

CETIko lantaldeak egiten duen ahalegina aintzatesten dugu. Hala ere, ukaezina da gainokupazioa egitura-arazo bat dela eta premiazkoa dela arazo hori konpontzea. Asiloa eskatu eta eskabidea izapidetzeko onartu zaien pertsonen joan-etorri askea bermatzeak, gure ustez, CETIko egoera arindu dezake, bai eta ERFen³⁰, funtsak handitu ere. Horretaz gainera, ezinbestekotzat jotzen dugu:

- Harrera humanitarioa emateko programak aktibatzea, eta, onuradunen artean, lehenetsua ematea zaugarritasun-egoeran dauden emakumeei, gatazkan dauden herrialdeetatik datozen pertsonen eta beren kargura adingabeak dituzten familia-taldeei.
- Autonomia-erkidegoak harrera horretan inplikaraztea.
- CETIko instalazioak eta inguruak hobetzeko inbertitzea.

Mugaldeko indarkeria amaitzea (hesia)

Txostena amaitzeko, ezinbestean aipatu behar dugu hesia eta hesian gertatzen den indarkeria. Indarkeria hori berehala amaitu behar da, ekintza zehatzen bidez:

- Legez kanpoko itzulketek bertan behera gelditu behar dute berehala, eta ezarritako legezko prozedurak errespetatu egin behar dira. Horrek esan nahi du lurraldean modu irregularrean sartzea lortzen duten pertsonak polizia-bulegoetara eraman behar direla eta dagokion administrazio-espedituari hasiera eman behar zaiola itzulketa bat edo kanporaketa bat eginez gero, ez itzularaztearen printzipioa eta balizko errefuxiatuak identifikatzeko printzipioa betez betiere.
- Mugaren bi aldeetan gertatzen diren abusuek eta neurri arbitrarioek bertan behera gelditu behar dute, eta pertsonen duintasuna eta giza eskubideak guztiz errespetatzen direla bermatu behar da.
- Herriaren Defendatzailearen gomendioari jarraituz (200/2013 Gomendioa, azaroaren 27koa), hesiko labanak kendu egin behar dira; izan ere, egiaztatu denez, arrisku larrian jartzen dute pertsonen bizia eta osotasuna.

Estatu-arrazoiek eta interes ekonomiko edo politikoek ezin dute egon biziarekiko errespetuaren gainetik, ez eta giza eskubideak zorrotz betetzearen gainetik ere.

³⁰ European Refugee Fund (Errefuxiatuentzako Europako Funtsa) delakoak helburu hau du: “Estatu Kideei laguntzea eta egiten dituzten ahaleginak hobetzea, harrera-baldintzak hobetzeko, asilo-prozedura bidezkoak eta eraginkorrak ezartzeko eta asiloaren arloan jardunbide egokiak bultzatzeko, nazioarteko babesa behar duten pertsonen eskubideak babestu eta Estatu Kideetako asilo-sistemak eraginkorrak izan daitezen”.

(6. Bibliografía)

Asociación Pro Derechos Humanos de Andalucía (APDHA). *Derechos Humanos en la Frontera Sur*. 2014ko txostena.

CIE-AK IXTEKO ESTATUKO KANPAINA: *Vulneración de Derechos Humanos en la Frontera Sur-Melilla*. Giza Eskubideen Behaketa Batzordearen txostena, 2014ko uztailakoa.

CEAR. *Informe relativo a las medidas adoptadas por el Gobierno español en el control de fronteras en Ceuta y Melilla que vulneran los derechos humanos de las personas inmigrantes y refugiadas que pretenden llegar a España por la Frontera Sur*. Madril, 2014.

CEAR. *La situación de las personas refugiadas en España*. 2014ko txostena. Catarata.

CEAR. *Acceso a la protección: un derecho humano*. "Access to Protection: a human right" proiektuaren esparruan egindako txostena. Proiektu horren finantzatzailea: European Programme for Integration and Migration (EPIM) – Network of European Foundations. Madril, 2014.

CEAR-Euskadi. *Beldurrik gabe bizi. Asiloaren babesa, genero-arrazoiengatiko jazarpenaren aurrean*. Bilbo, 2013.

CEAR-Euskadi. *Diccionario de Asilo – Asiloari buruzko hiztegia*. 2014 (<http://cear-euskadi.org/diccionario>)

CEAR-Euskadi. *Generoagatiko jazarpena eta asilo-eskubidea: testuinguru globaletik tokiko konpromisora. Espainiako asilo-sistema, emakumeen eta lesbianen, gayen, bisexualen eta transexualen giza eskubideen urraketari dagokionez*. Bilbo, 2009.

Herriaren Defendatzailea. *Informe Anual a las Cortes Generales 2013*.

Human Rights Watch. *Abusados y expulsados. Maltrato de migrantes del África Subsahariana en Marruecos*. 2014

I+D+i Iusmigrante. *Expulsiones en caliente: Cuando el Estado actúa al margen de la Ley*. 2014

Maleno Garzón, Helena. *La trata en el tránsito migratorio: de la externalización al ser humano*. 2012

Mugarik gabeko medikuak. *Violencia sexual y migración. La realidad oculta de las mujeres subsaharianas atrapadas en Marruecos de camino a Europa*. 2010

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua – Espainia; Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua – Europa. *Vidas en la Frontera Sur: migrantes forzosos y refugiados en Marruecos y su acceso a territorio español*. 2014ko uztailaren 17a.

Hainbat egile *¿Qué hacemos con las fronteras?* Akal, 2013.

Women's Link Worldwide. *La trata de mujeres y niñas nigerianas: esclavitud entre fronteras y prejuicios*. 2014

Women's Link Worldwide. *Mujeres migrantes en la clandestinidad. El aborto en Marruecos*.

Women's Link Worldwide. *Los derechos de las mujeres migrantes. Una realidad invisible*. 2009